

TXOSTENA 2024



EHU
Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 94 601 70 91


EHU
Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64


EHU
Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

 @hegoainstitutua.bsky.social

 instituto-hegoa

 @HegoaInstitutua



Aurkibidea

1. Aurkezpena	4
2. Prestakuntza-jarduerak	6
2.1. Hegoa Institutuak eskainitako graduondoak	6
2.1.1. Garapenari buruzko Ikasketako Doktorego-Programa	6
2.1.2. Master ofizialak	6
2.1.3. Berezko titulua	8
2.2. Hegoak antolatutako beste ikastaro batzuk	8
2.3. Hegoak antolatutako jardunaldiak eta mintegiak	9
2.4. Hegoa Institututako irakasleek graduondoko beste ikasketa batzuetan parte hartzea	18
2.5. Hegoako irakasleek emandako hitzaldiak eta tailerrak	19
2.6. Hegoako taldearen eta irakasle ikertzaileen lankidetzak beste ekitaldi batzuetan parte hartzea	20
3. Ikerketa-jarduerak	22
3.1. Ikerketa-taldeak, -ildoak eta -proiektuak	22
3.1.1. Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa	22
3.1.2. Gatazkak, bakea eta garapena	26
3.1.3. Garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako politiken koherentzia	32
3.1.4. Hezkuntza	34
3.2. Garapenari buruzko Ikasketen arloko doktorego-tesiak	38
3.3. Nazioarteko batzordeetan eta ordezkaritzetan parte hartzea	39
3.4. Hitzaldiak eta komunikazioak	40
3.5. Hegoaren partaidetza duten beste ikerketa jarduera batzuk	43
4. Argitalpenak	44
4.1. Hegoak argitaratutako liburuak eta beste material batzuk	44
4.2. Hegoaren aldizkako argitalpenak	45
4.2.1. Lan-Koadernoak	45
4.2.2. Hegoak Zabalduz	45
4.2.3. Boletín de Recursos de Información	46
4.2.4. Hariak. Recreando la educación emancipadora	46
4.3. Liburuak, liburu-kapituluak, artikuluak eta bestelako argitalpenak	46
5. Irakaskuntza eta ikerketarako baliabideak	50
5.1. Dokumentazio Zentroko zerbitzu digitalen datuak	50
5.2. Multimedia-berriak	52
6. Aholkularitza-zerbitzuak	54
7. Erakunde Aldaketa Feministarako Ekintza Plana 2023-2026	56
8. Erakundearen organigrama	57
9. Txosten ekonomikoa	59



1. Aurkezpena

Memoria honek laburbiltzen ditu Hegoa Institutuak 2024an egindako prestakuntza, ikerketa, unibertsitate-hedapen eta aholkularitzako jarduera nagusiak.

Graduondoko prestakuntza-jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: bi master ofizial (*Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta*, eta *Globalizazioa eta Garapena*), berezko master bat (*Nazioarteko Lankidetzan eta Hezkuntza Askatzailea*) eta doktorego-programa bat (*Garapenari buruzko Ikasketak*). Eskaintza zabal horri esker, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruko ikasketak eta lanbide-espezializazioa indartu egin dira duela hamarkada batzuetatik hona, eta Hegoan trebatutako pertsonak –jatorri desberdinetakoak– sektore horrekin lotutako hainbat entitatetan sartzea lortu da. 2024an, gaiak garatzeaz gain, mintegi osagarri ugari egin ditugu, eta harremana estutu dugu gure ikasleek *curriculumeko zein curriculumetik* kanpoko praktikak egiten dituzten hainbat antolakunderekin.

Era berean, tailer, topaketa, jardunaldi eta mintegi ugari sustatu ditugu EAEn eta beste herrialde batzuetan, eta ekintza horietan hainbat subjektorekin aritu gara lankidetzan: EHUko eta Espainiako eta Latinoamerikako beste unibertsitate batzuetako irakasleak eta ikasleak, kolektibo feministak, giza eskubideen aldeko antolakundeak, emakume erbesteratuen eta migratzaileen kolektiboak, nekazarien eta indigenen antolakundeak, etab.


Ikerketa-jarduerari dagokienez, nabarmentzekoa da Hegoa Institutuak hainbat talde, ildo eta proiektu bultzatzen dituela, eta horietan EHUko irakasle eta ikertzaile atxikiak eta institutuko lantaldeak parte hartzen dutela. Alde batetik, Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldea –Eusko Jaurlaritzak 2022-2025 aldirako aintzatetsia– sustatzen du. Lan-ildo hauek ditu: tokiko giza garapena, lurraldea eta instituzionalitatea; tokiko trantsizio ekosozialak eta ekonomia sozial eta solidarioa; gatazkei, bakeari eta segurtasunari buruzko azterketa kritikoak, eta feminismoak, gatazkek eta giza eskubideak. 2024an, ildo horietako lana hainbat kokalekutan (EAE, Espainia, Erdialdeko Amerika, Kolonia eta Mendebaldeko Sahara) egindako proiektuen bidez sustatu da. Bestalde, Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politiken Koherentziari buruzko Ikerketa Taldeak –EHUk 2022-2025 aldirako aintzatetsiak– ardatz ditu, besteak beste, 2030 Agenda eta GJHak, entitate deszentralizatuek eta unibertsitateak lankidetzan duten rola eta elikadura-burujabetza. Talde horrek Euskal Lankidetzeta Publikoaren Atariari aholkuak ematen jarraitu du. Gainera, Hezkuntza Taldeak, zenbait heziketa-ziklotako gizarte eraldaketarako hezkuntzaren helburu eta estrategietatik abiatuta, hainbat ekintza gauzatu ditu, justizia ekosozialaren, feminismoaren eta internazionalismoaren balioekin konprometitu eta kritikoa den unibertsitatea sustatzeko.

Bultzatutako talde eta proiektuen esparruan egindako ikerketa-jardueraren ondorioz, 2024an institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileek eta lantaldeak liburuak, liburu-kapituluak, artikulak, ikerketa-txostenak eta dibulgazio-materialak argitaratu dituzte. Halaber, ale berriak dituzte institutuaren aldizkako lau argitalpenek: *Cuadernos de Trabajo / Lan-Koadernoak*; *Hegoak Zabalduz*; *Hariak. Recreando la educación emancipadora*, eta *Boletín de Recursos de Información*.

Aholkularitza-jardueren artean, 2024an, Hegoak zerbitzuak eman dizkie Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundietako eta EAeko zenbait udaletako (Basauri, Eibar, Ermua eta Ordizia) nazioarteko lankidetzako arloei, proiektuen ebaluazio- eta jarraipen-lanetan, prestakuntzetan, ekimenen mapaketetan eta abar. EAetik kanpo, aurten aholkularitza eman diegu Balear Uharteetako Gobernuko Lankidetzeta eta Immigrazioko Zuzendaritza Nagusiari eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Lankidetzeta Ministerioari.

Azkenik, baina ez hutsalenik, institutuaren beste jarduketa-eremu finkatu bat garapen eta nazioarteko lankidetzako gaietan espezializatutako informazio eta dokumentazio zerbitzuen eskaintza da. Hegoako Dokumentazio Zentroak –2024ko abenduaren 31n, 22.185 erregistro kontabilizatu ziren– baliabide fisiko eta digital ugari eskaintzen ditu aztergai dugun eremuko irakaskuntza, ikerketa eta aholkularitzarako. 2024an, Dokumentazio Zentroaren Liburutegi Digitalean *online* egindako irakurraldietan, 3.442.764 PDF deskargatu ziren, munduko hainbat lekutatik. Hortaz, halako baliabideen eskari handia dago, eta horri erantzuten jarraitzen dugu Dokumentazio Zentroaren eta beste informazio- eta dokumentazio-zerbitzu batzuen bidez.

Irantzu Mencia Azkue
Hegoako zuzendaria





2. Prestakuntza jarduerak

2.1. Hegoa Institutuak eskainitako graduondoak

Gizarte-eraldaketarako prestakuntza- eta hezkuntza-jarduera hainbat formaturen bidez zertzen du Hegoak. Alde batetik, doktorego-programa bat, bi master ofizial eta berezko master bat eskaintzen ditu Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU). Bestetik, Hegoa Institutuko kideek parte hartzen dute Espainiako, Europako eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan emandako graduondoko ikastaro askotan (doktoregoak, masterrak, espezializatuak eta diplomatuak). Azkenik, beste unibertsitate, GGKE eta erakunde batzuek eskatuta ematen diren ikastaro, hitzaldi, tailer eta mintegiekin osatzen da jarduera hori.

2.1.1. Garapenari buruzko Ikasketako Doktorego-Programa

Garapenari buruzko Ikerketetako Doktorego-Programa EHUren Doktorego Eskolako (DOKe) doktorego-eskaintzaren parte da. Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta, gainera, GEZKI Institutuak eta Ekonomia Aplikatua, Soziologia eta Gizarte Lana, eta Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila sailek parte hartzen dute bertan.

Garapenari buruzko Ikerketetako doktorego-programak ikerketa-ildo hauek barne hartzen ditu: garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak; nazioarteko erakunde ekonomikoak eta integrazio ekonomikoa; garapenerako lankidetzeta eta ekintza humanitarioa; ingurumena eta garapen jasangarria; generoa eta garapena; garapenaren finantzaketa eta mikrokredituak; landa-garapena eta elikagaien segurtasuna; tokiko eta lurraldeko garapena; migrazioak eta baterako garapena; giza garapenerako eta jasangarritasunerako teknologia egokiak; hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak; gizarte-bazterketa, pobrezia eta desberdinkeria; gatazkak, segurtasuna eta garapena; lan-harremanak, giza eskubideak eta nazioz gaindiko enpresak; kultura, komunikazioa eta garapena; ongizatearen eta garapenaren adierazleak eta neurketa; partaidetzeta, demokrazia eta giza eskubideak; globalizazioaren prozesu soziokulturalak, eta ekonomia soziala eta solidarioa.

Hezkuntza Ministerioak emandako *Bikaintasunerako Aipamena* lortu zuen programak 2011n.

2.1.2. Master ofizialak

Globalizazio eta Garapeneko masterra eta Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako masterra EHUko unibertsitate-tituluen eskaintzaren parte dira. Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatuaren Sailak koordinatzen dituzte biak, eta Garapenari buruzko Ikasketetako doktorego-programarako sarbidea ematen dute.

Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra

Master hori espezializazio akademikora eta ikerketa-prestakuntzara dago bideratuta, eta globalizazioaren fenomenoaren eta garapen-prozesuen arteko harremanak aztertzea du ardatz. Diziplinarteko irakaskuntza-proposamena da, eta Garapenari buruzko Ikerketen (*Development Studies*) tradizioan kokatzen da.



Master horretako irakaskuntza funtsezko bi dimentsiotako eremu teoriko-metodologikoetan zentratzen da: globalizazioa, esparru ekonomiko, sozial, politiko edo kulturean interrelazioak eta prozesuak mundu-mailako bihurtzeko prozesu gisa ulertuta; eta garapenari buruzko ikuspegi teoriko nagusiak, giza garapenaren eta jasangarritasunaren paradigmatatik helduta, eta nazioarteko lankidetzak bizikidetzak baketsua eta maila globaleko garapena sustatzeko tresna gisa duen zeregina kontuan hartuta.

2024-2025 ikasturtean 59 eskaera jaso dira, hau da, aurreko ikasturtean baino % 79 gehiago, eta 22 pertsona matrikulatu dira lehen aldiz (hamabost emakume eta zazpi gizon). Zortzi pertsona Euskal Autonomia Erkidegokoak (EAE) dira, bost Espainiakoak, bat Europar Batasunekoak, zazpi Latinoamerikakoak eta bat Estatu Batuetakoak.

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Unibertsitate Masterra

Masterra, batez ere, ikasleek garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruan prestakuntza akademikoa eta profesionala jasotzera bideratuta dago, eta funtsezko erreferentziatzat ditu ekitatea, pobrezia-eraketaren aurkako borroka, giza garapena eta jasangarritasuna. Kalitatezko eta diziplina anitzeko lanbide-heziketa ematen du, garapenerako lankidetzaren eremuan hobeki laneratzeko eta txertatzeko.

Horretarako, aztergai diren gaietan esperientzia handia eta ibilbide luzea duten irakasleak daude masterran, unibertsitatetik zein lankidetzak-erakunde eta -antolakundeetatik datozenak. Gainera, ikasketa-programa osatzeko, garapen-lankidetzarako proiektuetan derrigorrezko praktikak egiten dira hainbat herrialdetan.

2024-2025 ikasturterako, aurrez izena emateko 96 eskaera jaso ziren (aurreko ikasturtean baino % 26 gehiago). Matrikulatu berri diren 25 pertsonetatik (hogeit hamar emakume eta bost gizon), bederatzi EAEkoak dira, zortzi beste autonomia-erkidego batzuetakoak, bi Europar Batasunekoak eta sei Latinoamerikakoak.

2.1.3. Berezko titulua

Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea Etengabeko Prestakuntzako Masterra (online)

Masterra Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta EHUren berezko tituluen eskaintzan sartzen da. Espainian, hezkuntza emantzipatzailearen kontzeptuak eta praktikak hain zabal jorratzen dituen bakarra da. Graduondoko proposamen horrek, egungo errealitatearen azterketa kritikotik abiatuta –globalizazio neoliberalaren barruan hainbat krisi egoteak ezaugarritzen du–, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea bultzatzeko gai diren pertsonak prestatzea du helburu.

Ikasleen lanbide-jarduna lankidetzarekin, hezkuntzarekin edo beste edozein lan-esparrurekin lotuta egon ala ez, ikasleak ideien eta praktika alternatiboen ezagutzan gaitzea da helburua, arreta berezia jarrita gizarte-aldaketa xede duten ekintza kolektiboak gauzatzeko baliabide teorikoak, trebetasunak eta balioak eskuratzean, mundu bidezkoago eta ekitatiboago baten alde. Guztiz *onLine* denez, munduko edozein lekutatik egin daiteke, eta beste jarduera batzuekin bateragarri egin.

Masterraren hamargarren edizioan, hau da, 2024-2025 ikasturtean, 20 pertsona matrikulatu dira (hamazazpi emakume eta hiru gizon). Sei EAetik datoz, sei Espainiako gainerako lekuetatik, bat Portugaldik eta zazpi Latinoamerikatik.

2.2. Hegoak antolatutako beste ikastaro batzuk

Giza eskubideen artxiboen kudeatzaileak trebatzea. Erbestea, insilioa eta itzulera (Urriak 1-4)



Ikastaroa Hegoak antolatu zuen, Kolonbiako Memoria Historikoaren Zentro Nazionalarekin lankidetzan, eta 27 kolonbiar erbesteratu eta migratuk parte hartu zuten. Horiek denak munduko herrialde askotan bizi dira (Alemania, Belgika, Txile, Espainia, Ameriketako Estatu Batuak, Italia, Frantzia, Norvegia, Panama eta Suedia, bestak beste). Myriam Loaizak eta Gilberto Villak eman zuten prestakuntza. Lehena ondasun higigarrien zaharberritzailea da eta, gaur egun, memorializazio-lanak egiten ditu Bakerako Jurisdikzio Berezian; bigarrena, berriz, Kolonbiako Memoria Historikoaren Zentro Nazionaleko Giza Eskubideen Artxiboen zuzendari teknikoa da.

Ikastaroan, giza eskubideen defentsan artxiboak kudeatzeko tresna berritzaileak eskaini ziren eta, horrez gain, mota horretako artxiboek Kolonbiako gatazkako biktimizazioen zigorgabetasuna desagerrarazteko duten intzidentzia politikoari buruz eztabaidatu zen.

Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Prestakuntza Espezializatuko Ikastaroaren bigarren edizioa

(Ekainak 24-uztailak 26)

Prestakuntza trinkoa izan zen, eta Latinoamerikako zenbait herrialdetako eta Mendebaldeko Saharako hamahiru emakumezko defendatzailek parte hartu zuten. Hegoaren egoitzan egin zen, Bilboko Zubiria Etxean, saio bat izan ezik; hori Donostian egin zen, Aranzadi zientzia-elkartean. Edukiak giza eskubideen aldeko lanaren dimentsio ezberdinei buruzko moduluetan antolatu ziren: alderdi psikosoziala, komunikazio-estrategiak, tresna juridiko-legalak, auzitegi-ikerketa, babes eta segurtasunaren arloko tresnak, eta botere korporatiboaren mekanismoen analisia.

Emakumezko defendatzaileek zenbait antolakunde ordezkatu zituzten: Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala (UNAMG) eta Giza Eskubideen arloko Lege Ekintzarako Zentroa (CALDH), Guatemalakoak; Hondurasko Atxilotu eta Desagertuen Senideen Batzordea (COFADEH); Ruta Pacífica de las Mujeres, Kolonbiakoa; Saharako Emakumeen Batasun Nazionala (UNMS), Mendebaldeko Saharakoa; Landako Emakumeen Konfederazio Nazionala (CONAMUCA), Dominikar Errepublikakoa; Madres de Abril elkarte (AMA), Nikaraguakoa. El Salvadorreko entitate hauen ordezkariak izan ziren: Las Dignas elkarte feminista, Cristosal fundazioa, Soyapango langileen sindikatua (SITRASOYA) eta gatazka armatuko preso politiko ohien batzordea (ExCOPPES), bai eta *MalaYerba* eta *Focus* hedabide digital alternatiboak ere.



2.3. Hegoak antolatutako jardunaldiak eta mintegiak

Unibertsitate-masterren mintegiak eta jardunaldiak

Ikasturtean zehar, Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta eta *Globalizazioa eta Garapena* unibertsitate-masterretako ikasleei bereziki zuzendutako hainbat jarduera antolatu dira. Landutako gaietan interesa duten beste pertsona batzuek ere parte hartu ahal izan dute mintegietan.

1. "Giza eskubideak eta pertsonen salerosketa". Alexander Vallejo, *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren* masterreko ikasle ohia eta A21 antolakundeko langilea. Urtarrilak 19.
2. "Euskal Herriaren eta Kolonbiaren arteko artikulazio-proiektua, hezkuntza emantzipatzailea eta elkarlaneko ikerketa kritikoa esperimintatzeko, ikasteko eta komunikatzeko". Amaia del Rfo. Otsailak 2.
3. "Behaketa Brigada Zibilak Chiapasen (Mexiko)". Titouan, Lumaltik Herriak elkarteko kidea. Martxoak 6.
4. "Zer ekarpen egin dezakegu ingurunearekin eta justizia sozialarekin konprometitutako elikadura-sistemak eraikitze?". Bidezko Elikadura. Apirilak 12.
5. Irteera Azpeitira, Elikagunea ekimena ezagutzeko. Bidezko Elikadura. Apirilak 19.
6. "Master amaierako lanaren aurrerapenen aurkezpena". Masterretako ikasleak eta irakasleak. Apirilak 22.
7. "Demokrazia autoritarioen" konfigurazio berria Latinoamerikan. El Salvadorren kasua". Gabriela Santos, José Simeón Cañas Erdialdeko Amerikako Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria (IDHUCA). Maiatzak 2.
8. "Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko mintegi teoriko-praktikoa". Hegoa Institutuko Hezkuntza Taldea. Maiatzak 6 eta 7.
9. "Sexu- eta genero-aniztasuna Giza Eskubideen Agendan: LGTBI errealitatea ikertzeko metodologiak". Aimar Rubio Llon. Maiatzak 31.
10. "Palestinako genozidioa, Ekialde Hurbileko mapa politikoa berregituratzeko beste fase bat". Nazarín Armanian. Ekainak 10.
11. "Desazkundera eta justizia iparralde(et)an eta hegoalde(et)an". Adrián Almazán. Irailak 30.
12. "Caucako (Kolonbia) trantsizio ekosozialak eta bake-eraikuntza". La Plataformako kideak, Carlos Puig Hegoa Institutuko proiektu-teknikariaren laguntzarekin. Urriak 4.
13. CEIBA eta OXLAJUU-E elkarteen lanaren eta praktiken aurkezpena, Guatemalako bi ikaskideren partaidetzarekin. Lagun Artean. Urriak 22.
14. Sexu-aniztasunari eta nazioarteko lankidetzari buruzko bost tailerrek osatutako ikastaroa. GUZTIOK eta Nazioarteko Elkartasuna. Urriak 24, azaroak 7 eta 21, abenduak 13 eta 20.
15. "SensiSOS tailerrak: migratzaileen giza eskubideak defendatzeko lanean dabiltzan profesionalen sentsibilizazioaren bidez arrazakeriaren aurkako aliantzak sortuz". SOS Racismo federazioa. Azaroak 4 eta 6.
16. "Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko mintegi teoriko-praktikoa". Hegoa Institutuko Hezkuntza Taldea. Azaroak 15.
17. Hegoa Institutuaren Dokumentazio Zentroari eta Liburutegi Digitalaren erabilerari buruzko aurkezpena. Hegoa Institutuko taldea. Azaroak 26.



Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko mintegia.

Gainera, urriaren 10ean, GGKEen aurrez aurreko azoka bat egin zen, aurreko urteetako ez bezalako formatuarekin. Hegoak batez ere praktiken bidez harremana duen antolakundeetako batzuetan lanean ari ziren masterretako ikasle ohiek hartu zuten parte, eta, beraz, jarduera berean aurkeztu ziren hainbat GGKE, praktika eta irteera profesional. Parte-hartzaileak antolakunde hauetako kide ziren: Hegoa Institutua bera, Calcuta Ondoan, Medicus Mundi Bizkaia eta Nazioarteko Elkartasuna.

Abenduaren 11n, master ofizialetako ikasleak eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren instalazioetara joan ahal izan ziren prestakuntza-bisita bat egitera.



Elikagunera bisita, Bidezko Elikadura GGKEarekin (Azpeitia, apirila).

Garapenari buruzko Ikasketetako doktorego-programako mintegiak

Doktorego-programako mintegien helburua doktorego-tesia egiten ari diren ikasleen arteko interkonexioa bultzatzea da, ikerketa-prozesuan egindako aurrerapenak eta sortutako kezak azaltzeko eztabaidarako gune bat behar duten kasuan. Horietan parte hartzen dute programako ikasleek, irakasleek eta Hegoako kideek.

Apirilaren 24an, Juan Telleriak (Hegoa eta EHUko Filosofia Saila) eta Laís Rodriguez de Oliveirak (Coimbrako Unibertsitateko Gizarte Ikasketen Zentroa eta Ekonomia Fakultatea) mintegi hau dinamizatu zuten: "Transforming our (way to look at the) world. 2023 Agendaren azterketa kritikoa: berdintasunaren eta garapen jasangarriaren kontzeptuak". Saioaren modalitatea mistoa izan zen (*onLine* eta aurrez aurre).

2024an zehar, batzorde bat sortu da, eta, horren bidez, mintegiak sortu eta sustatuko dira. EHUko irakasleek eta doktoratu aurreko eta ondoko ikertzaileek osatzen dute. Inprimaki bat garatu dute, eta doktorego-programako ikasleekin partekatuko dute, interesak eta beharrak identifikatzeko. Halaber, 2025erako mintegi-egutegi bat sortzen, hizlariak bilatzen eta jarduerak hedatzeko plan bat prestatzen ari dira.

Desagertze behartua: ikuspegi juridikoa, psikosoziala, generokoa eta biktimena Erdialdeko Amerikako elkarlaneko topaketa

(San Salvador, urtarrilak 18-19)

Jarduera horretan, lana hainbat ikuspegiren inguruan antolatu zen: biktimen ikuspegia (bilaketa-lanean ari diren eta justizia eske dabilzan senideena); ikuspegi juridikoa eta forentsea; ikuspegi psikosoziala (biktimei laguntzeko behar eta formatuen balorazioarekin), eta genero-ikuspegia. Estatu-indarkeriaren biktimek eta lagun egiten dieten giza eskubideen antolakundeek sustatutako bi lege-proposamenen edukia ere aztertu zen: Hondurasko Biktimen eta Memoria Historikoaren Lege Integrala eta El Salvadorreko gatazka armatuan giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimentzako justizia trantsizionalaren Legearen aurreproiektua.

El Salvadorreko, Guatemalako eta Hondurasko giza eskubideen mugimenduko eta mugimendu feministako 15 antolakundetako 30 pertsonak parte hartu zuten topaketan.



Mahai-ingurua: “El Salvadorreko gatazka armatuan sexu-indarkeriarekin lotutako justiziaren gaineko begirada feministak”

(San Salvador, urtarrilak 24)

Hegoak sustatu zuen jarduera El Salvadorreko Las Dignas elkarte feministarekin batera, eta gerran sexu-indarkeriako kasuetan justizia exijitzeko lanean prestakuntza emateko eta gaitasunak indartzeko xedearekin egin zen.

Bertan, 25 emakumek hartu zuten parte: kolektibo feministetakoak, giza eskubideen kolektiboetakoak, gerrako beteranoak, El Salvadorreko Unibertsitateko ikertzaileak eta interesa zuten beste pertsona batzuk. Gai hauek landu ziren: gatazka armatuetan sexu-indarkeria auzipetzeko nazioarteko esperientziak, lege-esparruaren eta prozesu judizialen potentzialtasunak eta mugak El Salvadorren, eta ekarpen feministak ekintza-eremu horretan.

Tailerra El Salvadorreko gerran jasandako sexu-indarkeriagatik justizia eskatzen duten emakumeekin

(San Salvador, urtarrilak 26)

Jarduera horretan, El Salvadorreko gatazka armatuan sexu-indarkeriaren biktima izan ziren hamar emakumek hartu zuten parte. 2018az geroztik justizia eske ari dira Errepublikako Fiskaltza Nagusian. Madeleine Lagadec Giza Eskubideak Sustatzeko Zentroaren laguntzarekin antolatutako tailerrean, parte-hartzaileek justizia eskatzeko prozesuan izandako ibilbide pertsonalaren eta kolektiboaren balantzea egin zuten, eta izan zituzten eta oraindik ere badituzten zailtasun handienak identifikatu zituzten.

Gradu amaierako lanak (GRAL) eta master amaierako lanak (MAL) egiteko laguntza- eta orientazio-mintegiak, hezkuntza emantzipatzailearen proposamenetik abiatuta

(Sarriko, martxoak 1, 7, 15, 21 eta 27)

Ekimena EHUko ikasleei laguntzeko proposamen gisa sortu zen, EAEko eta Kolonbiako irakasleen, ikasleen eta kolektibo sozialen arteko elkarrizketan eta hausnarketan oinarrituta, errealitatea kritikoki ulertzeko, haien arazoak konpontzen konprometitzeko eta GRALen eta MALen ikerketa-jarduera beste mundu posible batzuen eraikuntzarekin lotzeko.

Prestakuntza horretan 25 pertsonako talde txiki batek hartu zuen parte: hamalau ikasle, bost irakasle, lau GGKE eta sei kolektibo sozial. 17 orduko iraupena izan zuen, eta horietatik bost *onLine* egin ziren, komunikatzeko eta eztabaida-trukea izateko Hego Kolonbiako Unibertsitateko (USCO) eta Caucaiko Unibertsitateko (UNICAUCA) irakasleekin, bai eta unibertsitate horiekin batera ikertzen ari diren Kolonbiako kolektibo sozialekin ere.

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko VII. Jardunaldiak: “Mugimendu sozialen eta GGKEen arteko artikulazioaren erronkak gizarte-eraldaketan”

(Gasteiz, apirilak 17)

Jardunaldiok Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Hegoak antolatu ditugu. Bertan, eztabaidarekin jarraitu nahi dugu, (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategian sakontzeko.

Aurtengo edizioan, gai nagusi izan dira gizarte-mugimenduen eta GGKEen arteko artikulazioak gizarte-eraldaketan dituen erronkak. Funtsezko gaia da hori, hezkuntza-proiektuaren deskolonizazioari eta despatriarkalizazioari aurre egiteko eta bizitza antolatzeke beste modu batzuk planteatzeko, esplotazio eta menderatzerik gabeak.

Hauen partaidetza izan dugu: Ana Esther Ceceña Martorella (ekonomialari mexikarra eta Geopolitikaren Behatoki Latinoamerikarraren zuzendaria) eta Itziar Gandarias Goikoetxea (EAEko feminista eta Deustuko Unibertsitateko Esku-hartze Sozialaren Psikologiako Masterreko zuzendaria) eta Martin Etxea kolektiboa, Aigua és vida plataforma eta Baladre koordinakundea.

Mendebaldeko Sahararen eta Kolonbiaren arteko elkarlan-topaketa. Giza eskubideak babesteko mekanismoen aurrean eragiteko estrategiak: emakumezko defendatzaileen zeregina erbestean
(Bilbo, apirilak 19)

22 emakume izan ziren jardueran, Kolonbiako, Mendebaldeko Saharako eta EAEko zortzi giza eskubideen antolakunde eta mugimendu feminista ordezkatzan. Helburua lortu zen; izan ere, elkarrizketarako eta elkarrengandik ikasteko gune bat eskaini zitzaion Saharako eta Kolonbiako giza eskubideen emakumezko defendatzaileei. Lehenengoek batez ere Genevako Nazio Batuen nazioarteko mekanismoen aurrean dute esperientzia, eta bigarrenek, aldiz, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren aurrean.

Nazioarteko babes-mekanismoetan izandako eraginaren esperientzia aztertzeaz gain, erbestetik giza eskubideen defentsan duten eginkizunaren eta gatazka armatuen ondorioz migratzaile gisa dituzten bizipenen beste alderdi batzuk ere jorratu zituzten parte-hartzaileek.



Unibertsitate Hedapen Kritikoari buruzko I. Jardunaldiak: unibertsitatearen eta gizartearen arteko artikulazioaren erronkak, eraldaketa ekosozialerantz igartzeko

(Granada, maiatzak 23 eta 24)

Unibertsitate Hedapen Kritikoari buruzko I. Jardunaldiak Granadako Unibertsitatean (UGR) egin ziren, Garapen Lankidetzarako Ekimenen Zentroarekin (CICODE) egindako aliantzari esker. 218 pertsonak hartu zuten parte.

Ekitaldian, Espainiako zortzi unibertsitate publikotan Unibertsitate Hedapenari buruzko Diagnostikoaren emaitzak aurkezteaz gain, Latinoamerikako hainbat unibertsitateetan bultzatutako hedapen kritikoko proposamenak erakutsi ziren, eta feminismoen, antiarrazakeriaren eta antimilitarismoaren ekarpenetan sakondu zen, unibertsitate-funtzio horri zentzu kritiko handiagoa emateko estrategia interesgarri gisa. Jardunaldiek talde-lanerako espazioak ere izan zituzten, eta **zuzeneko irratsaio bat egin zen (*Carne Cruda*)**.



Carne Cruda irratsaioa, "Universidad Crítica, de la clase a la calle".

Hegoalde Globaleko giza eskubideen emakumezko defendatzaileen eta Euskadin bizi diren diasporetako aktibisten arteko nazioarteko topaketa

(Bilbo, ekainak 28)

Nazioarteko topaketa horretan, 25 emakumeri egin zitzaizkien harrera, Hegoalde Globaleko hainbat kolektibotakoak eta gatazkan eta gatazka ostean dauden herrialdeetatik etorritako EAEn bizi direnak. Bertan, nazioarteko eta eskualdeko testuinguruaren analisia partekatu zen, partehartzaileen jatorriaren arabera, eta hainbat motatako proposamenak sortzeko taldeak osatu ziren, Hegoalde Globaleko giza eskubideen aldeko antolakundeak eta antolakunde feministak eta aktibismo sozial eta politikoa orain EAEn garatzen duten herrialde gatazkatuetako emakumeen arteko sare-lana indartzeko.

Mintegia: “Migrazioak, erbestea eta giza eskubideak. Esperientzia praktikoetan oinarritutako hurbilketa bat”

(Sarriko, Bilbo, azaroak 6)

Carmen Vásquez Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen (APDHA) ordezkaariaren eta Dorys Ardila Kolonbiako Egiaren Batzordearen gomendioen Jarraipen eta Monitorizazio Batzordeko kidearen arteko elkarrizketaren bidez, migrazioen eta erbestearen egungo erronkei heldu zitzairen, bai eta prozesu horietan giza eskubideek duten zereginari ere. Mintegian, halaber, Andaluziako soroetan lan egiten duten emakume migratzaileen eta Europan erbesteratutako kolonbiarren kasu praktikoak azaldu ziren.

Mintegia: “Trantsizio ekosozialak eta krisi sistemikoaren alternatibak. Trantsizio-esperientziak ESStik Andeetako eskualdean”

(Online, azaroak 26 eta 27)

Egungo erronkei heldu zitzairen: jasangarritasun ekologikoa, ongizate ekonomikoa eta justizia soziala. Aldi berean, gure gizarteak eta ekonomia eraldatzeko proposamenak aurkeztu eta eztabaidatu ziren. Orobat, *Transiciones ecosociales desde experiencias de Economía Social y Solidaria en Bolivia, Colombia, Ecuador y Perú* liburua aurkeztu zen (Hegoa, 2024).

Partaidetzazko Ikerketa Ekintzari buruzko jardunaldiak: “Jakintzen mestizajea utopiak eraikitzeko”

(Sarriko, Bilbo, azaroak 28 eta 29)

Jardunaldiok Caucaoko Unibertsitatearen (UNICAUCA), Hego Kolonbiako Unibertsitatearen (USCO) eta Hegoaren arteko aliantzari esker sustatu, eta Hezkuntza Fakultateko eta Parte Hartuz ikerketa-taldeko irakasle-talde batekin batera antolatu ziren. Esparru akademikoko eta sozialeko 100 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte.



Topaketan, elkarrizketa-mahaien bidez, partaidetzazko ikerketa-ekintzaren ideia hurbiltzea eta prozesu horiek eraikitzen dituzten subjektuei buruz hausnartzea proposatu genuen. Horrez gain, ikerketa-erperientzia biziak eta ikuspegi kritikoetatik (adibidez, feminismoak, ikuspegi dekoloniala, antiarrazakeria eta ikuspegi ekosoziala) sortzen diren eztabaidak aurkeztu genituen.

Partaidetza aktiboa sustatze aldera, partaidetza-metodologiei, ikerketaren komunikazioari eta unibertsitateak gizartearekin duen konpromisoari buruzko aldibereko tailerrak egin ziren. Partaidetzazko ikerketa-ekintzaren proposamenari buruzko dokumentuak, baliabideak eta bideoak biltzen ditu web-orri honek: <https://jornadasiap.eus/eu/>.

Desagertze behartuari buruzko mintegia

(Bilbo, abenduak 2)

Bi lan-mahairen bidez, hainbat alderdi jorratu ziren mintegian: alde batetik, estatu-indarkeriak eragindako desagertze behartuaren ondorioz senide bila eta justizia eske dabilzan senideek hausnarketa egin zuten, eta, bestetik, desagertze behartuaren aurkako lanean izandako aurrerapenak eta atzerapenak azaldu ziren. Mahaia arlo juridiko, psikosozial eta antropologiko forentseko espezialistek osatu zuten.

Hainbat eremutako (lankidetzaz, elkarte feministak, akademia, etab.) 35 pertsona eta El Salvador, Guatemala eta Kolonbiako desagertze behartuaren biktimen senideak bertaratu ziren, gizateriaren aurkako delitu horren aurrean egiaren, justiziaren eta erreparazioaren alde lanean ari direnak.



Unibertsitate-curriculumean ikuspegi ekosoziala jorratzea

(Leioa, abenduak 4, 10, 11 eta 18)

Ekitaldi hori Bilboko Hezkuntza Fakultatearekin lankidetzan antolatu genuen, Asteazken Ekosozialak ekimenaren esparruan –duela urte batzuetatik antolatzen du zentroak kulturajarduera hori–. Tailerrok eztabaidarako eta eraikuntza kolektiborako gune bihurtu ziren, eta ikuspegi ekosoziala curriculumean txertatzeko estrategiak eta orientabideak pentsatu eta imajinatu ahal izan genituen.

Caucako Unibertsitatea (UNICAUCA) eta Hego Kolonbiako Unibertsitatea (USCO) buru dituzten Kolonbiako esperientzia ekosozialetara hurbiltzeaz gain, Garúa Kooperatibaren, Pandora Mirabiliaren eta Hezekosen aholkularitza izan genuen; kolektibo horiek sona handia dute hezkuntzaren eta trantsizio ekosozialaren arloan. Erabilitako metodologiari esker, parte-hartzaile guztien esperientziak eta ezagutzak berreskuratu genituen, bai eta begirada feministari eta dekoloniarari zeharka heldu ere.



2.4. Hegoa Institutuko irakasleek graduondoko beste ikasketa batzuetan parte hartzea

Garapenerako Lankidetzako Berezko Masterra. Zaragozako Unibertsitatea. Irakasgaiak: Gizarte-aldaketarako pedagogia.

Garapen, Lankidetzeta eta Ekintza Komunitarioko masterra. Ramón Llull Unibertsitatea, Bartzelona. Irakasgaiak: Gatazka, bakea, segurtasuna eta giza eskubideak; Ekintza Humanitarioa.

Diplomazia eta Nazioarteko Antolakundeetako Masterra. CEI, Bartzelonako Unibertsitatea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Unibertsitate Masterra: Ekonomia: Aplikazio Empirikoak eta Politikoak. Irakasgaiak: Environmental Economics.

Enpresari Aplikatutako Ekonomia Zirkularra Etengabeko Prestakuntzako Masterra. EHU. Irakasgaiak: Ekonomia Zirkularren Sektorre Estrategikoak.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa Masterra. GEZKI Institutua, EHU. Irakasgaiak: Finantza etikoak; Ekonomia sozial eta solidarioa (ESS): teoria eta garapenak; Esku-hartze publikoak eta ESS; Ekonomia sozial eta solidarioa garapenerako lankidetzan; ESS entitateen antolaketa eta administrazioa (finantza-kudeaketa).

Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, EHU. Modulua: Politika sozialak, ekonomikoak eta berdintasuna. Irakasgaiak: Ekonomia feminista; Generoa, erakundeak eta politikak (saioa: “Emakumeen mugimenduaren partaidetza-esperientziak zigorgabetasunaren aurkako borrokan”; Politika sozialak, ekonomikoak eta berdintasuna; Globalizazioaren erronkak.

Nazioarteko Ikasketak Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaiak: Gatazkak, segurtasuna eta garapena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Baxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaia: Ekonomia eta enpresa osagarriak.

Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaia: Enplegu-politika aktiboak; Lan-merkatuen funtzionamenduaren azterketa.

Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna. Berdintasun Eragileak Etengabeko Prestakuntzako Masterra. EHU. Irakasgaiak: Ekonomia feminista eta Aurrekontu publikoak genero-ikuspegiarekin.

Telekomunikazio Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaiak: Telekomunikazioaren Teknologia Txertatzea Gizartean; Komunikazioen sistema elektronikoak.

Ingurumena, Iraunkortasuna eta GIH Berezko Masterra. Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra, EHU. Irakasgaiak: Garapen Iraunkorra, Aniztasun Naturala eta Ekosistemen Zerbitzuak; Ekosistemen zerbitzuen balorazio ekonomikoa; Mugikortasun Iraunkorra; Giza Garapenerako eta Iraunkortasunerako Teknologia.

Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterra. EHU. Feminismoak eta parte-hartzea blokeko saioa.

Nazioarteko Harremanetako eta Afrikako Ikasketetako Master Ofiziala. Madrilgo Uni-

bertsitate Autonomoko Politika Zientzien eta Nazioarteko Harremanen Saila. Irakasgaia: Globalizazioa, eskualde-integrazioa eta garapenerako lankidetzak Afrikan.

Nazioarteko Harremanetako Masterra, Nazioarteko Segurtasuneko Masterra eta Politika Publikoetako Masterra. IBEI – Institut Barcelona d'Estudis Internacionals. Irakasgaia: Gender, Security and Development.

Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra. EHU, Rafael Landívar Unibertsitatean, Guatemalako Hirian. Irakasgaia: Konstituzionalismoaren erronkak XXI. mendean: Europako migrazio-zuzenbidea eta -politikak.

Generoa, Maskulinitateak eta Gizarte Ekin-tza Unibertsitate Espezializazioko Graduon-doa. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, EHU eta CEPAIM Fundazioa. V. moduluaren koordinazioa: Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta berdintasuna sustatzea. Irakasgaia: Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria ugariak eta zaurgarritasun bereziko gizarte-egoerak.

2030 Agendaren eta GJHen Integrazio Estrategikoa, Jarraipena eta Komunikazioa Unibertsitate Espezializazioko Graduondoa. EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea. Irakasgaiak: Agenda ezartzea; 2030 Agendaren aurrekontu filosofiko-antropologikoak.

2.5. Hegoako irakasleek emandako hitzaldiak eta tailerrak

“Feminismo dekoloniala”. Mintegia koordinatzea eta erraztea Cabo Delgado (Mozambike) Bakearen aldeko Ikasketa eta Ekintza Zentroan, urtarrilak 25-30.

“Bakea/bakeak garatzeko eta eraikitzeke ikuspegi eta metodologia kritikoak”. Mintegia koordinatzea eta erraztea Cabo Delgado (Mozambike) Bakearen aldeko Ikasketa eta Ekintza Zentroan, urtarrilak 31 - otsailak 6.

“Woman, Life, Freedom mugimendua Irango testuinguru soziopolitikoaren ikuspegi feministatik”, IE University School of Politics, Economics and Global Affairs. Madril, otsailak 19.

“Emakumeak* mugimenduan: generoa, migrazio behartua eta bakearen eraikuntza”, Geneva Graduate Institute – Albert Hirschman Centre on Democracy eta Bakearen aldeko Kataluniako Nazioarteko Institutua (ICIP), Bartzelona, apirilak 10.

“Nekazari-ekonomia feministak”. Prestakuntza eta heziketa ematea Coimbrako Unibertsitateko (CES) Gizarte Ikasketen Zentroko Ekologia Feministen 5. Eskolako mintegien zikloan. Coimbra, otsailak 1 - maiatzak 16.

“Gizarte-eraldaketarako hezkuntza. Unibertsitate kritiko eta konprometitu baterako ikuspegia”. Hitzaldia “2030 Agenda unibertsitateetik. Proposamenak ikuspegi kritiko eta aktibo batetik” jardunaldian, Garapen Lankidetzarako Ekimenen Zentroa (CI-CODE), Granadako Unibertsitatea (UGR). Granada, martxoak 7.

“Aurrerapenak herritartasun globalerako hezkuntzaren esparruan, ikuspegi eraldatzaile batetik”. Esparru-hitzaldia *Herritartasun globalerako hezkuntza, gizartea eraldatzeko estrategia gisa* jardunaldian, Madrilgo GGKEen Sarea. Madril, martxoak 14.

“Herritartasun globalerako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza” Hitzaldia *Mandela Programan* (Prestakuntza Extremadurako Autonomia Erkidegoko helduen garapenerako nazioarteko lankidetzan), Extremadurako Unibertsitate Herrikoien Elkarte. Mérida, martxoak 15.

“Gizarte-eraldaketarako hezkuntza. Ezinbesteko ikuspegia trantsizio ekosozialerako”. Hitzaldia “*Canvi climàtic i alimentació*” jardunaldian, Justícia Alimentària. Menorca, apirilak 19.

“Garapenerako politiken koherentzia 2030 Agendaren esparruan”. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari eta teknikariari zuzendutako saioa. Donostia, ekainak 13.

“Garapenaren teoriak: bidaia bat giza garapenaren printzipioetara”, XXV. mintegia: Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologia, Mugarik Gabeko Ingeniaritzeta-Euskadi. Bilbo, urriak 11.

“Gatazka ekosozialen eta kapitala/bizitza gatazkaren aurrean bakea eraikitzeke dimentsioak: 'Bizitzarako lurraldeak' ikuspegia eta praktikak”, *Tokiko Bakearen Mintegia*, Bakearen aldeko Ikerketarako Espainiako Elkarte (aiPAZ). *OnLine*, urriak 14.

“Krisi ekosozialak ulertzea, horien gainean jarduteko. Hezkuntza eraldatzailea ikasgelan”. Hitzaldia, *Garapenerako Irakasleen XI. Topaketan*, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Zerbitzua, Gaztela eta Leongo Junta. El Espinar (Segovia), azaroak 23.

“Nola murriztu unibertsitateen ingurumen-aztarna? EHUren EHU-Aztarna proiektua”. Hitzaldia, “Unibertsitatearen eraldaketa ekosozialerako esperientziak” mahai-inguruan, *Garapen Jasangarriaren Erronken Unibertsitate Behatokiaren (UCM Behatokia 2030)* txostena aurkezteko jardunaldia, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea. Madril, abenduak 13.

2.6. Hegoako taldearen eta irakasle ikertzaileen lankidetzak beste ekitaldi batzuetan

“*Tokiko Bake Agendarako eta Lankidetzeta Deszentralizaturako Gida: Tokiko bake-politika publikoak indartzeko orientabideak*” azterlanaren aurkezpena, *Bake eta lankidetzeta deszentralizatuko tokiko ekimenak* jardunaldian, Lankidetzeta Deszentralizatuaren Behatokia, Bartzelonako Aldundia eta Bakearen aldeko Kataluniako Nazioarteko Institutua (ICIP). Bartzelona, martxoak 12.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiako Olinpiaden Batzorde Antolatzailean parte

hartzea (2023-2024 ikasturtea), Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, EHU. Bilbo, martxoak 15.

Ekintza Humanitarioa, Garapena eta Bakea Afrikako Gatazketan gaiari buruzko 2. Mintegiaren koordinazio akademikoa, *Afrika-Euskadi: lotura hirukoitza birpentsatzen*, EHUGune, Gernika Gogoratuz eta Ayuda en Acción antolakundeek antolatua. Bilbo, martxoak 18.

Kultura eta Bakearen XXXIV. Nazioarteko Jardunaldien koordinazio akademikoa.

Etorkizuneko lurraldeen kartografiak, Gernika Gogoratuz. Gernika-Lumo, apirilak 14-26.

Campus Bizia Lab programan parte hartzea, Arabako campuseko nekazaritza ekologikoko azokan. Koordinazioa: Loreto Saénz de Ugarte. Gasteiz, apirilak 23.

Bakearen Ekonomiaren, Euskal Enpresaren eta Giza Eskubideen VII. Laborategiaren koordinazio akademikoa, ehuGunek eta Gernika Gogoratuzek antolatua, REAS Euskadi, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, Bilboko Udala eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin lankidetzan. Bilbo, maiatzak 21.


Garapenaren Ikasketen Nazioarteko VII. Kongresua: trantsizio justuak eta garapen jasangarrirako itunak delakoaren batzorde zientifikoan parte hartzea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko (UCM) Nazioarteko Harremanen eta Lankidetzaren Errektoreordetza, Nazioarteko Ikasketen Institutu Konplutentsea (ICEI), Garapen eta Lankidetzako Uni-

bertsitate Institutua (IUDC) eta Garapenaren Ikasketen Espainiako Sarea (REEDES). Madril, maiatzak 30 eta 31.

La educación como elemento clave para cambiar el mundo podcastaren grabaketan kolaboratzea, eLankidetzak – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak proiektuak, entitateak eta lantzen dituen arazoak ezagutarazteko EITBrekin lankidetzan duen programaren esparruan. Abuztuak 19.

Ekintza Humanitarioa, Garapena eta Bakea Afrikako Gatazketan gaiari buruzko 3. Mintegiaren koordinazio akademikoa, *Nazioarteko GKEak eta lotura hirukoitzeko dilemak*, Gernika Gogoratuz eta Ayuda en Acción antolakundeek antolatua. Gernika-Lumo, 2024ko irailak 13.

Koordinazio akademikoa eta hizlaria *Hitz egin dezagun Ekonomiaz* ikastaroan, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko 55+ Elkartegiak. Gasteiz, urria-abendua.





3. Ikerketa jarduerak

3.1. Ikerketa-taldeak, -ildoak eta -proiektuak

2024an, Hegoako ikerketa-talde eta -ildoen bidez ikerketa-jarduera ugari bultzatu dira. Lan horretan pertsona asko aritu dira eraikuntza- eta truke-espazio kolektiboetan, bai institutuan bertan, bai gure inguruko beste antolakunde batzuetan, eta lan egiten dugun herrialdeetako antolakunde aliatuetan.

Ikerketa-talde horiek hurrengo orrialdeetan aipatuko ditugun proiektuak gauzatzen parte hartu dute. Ekimen horien esparruan, garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzko pentsamendu kritikoa sortzeko helburuan oinarritutako hainbat argitalpen prestatu eta zabaldu dira.

3.1.1. Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa

Taldearen jarduerak bi oinarri teorikotan kokatzen dira: a) giza garapena arau-erreferentzia gisa, gaitasunen ikuspegian oinarrituta, pertsona, erakunde eta gizartearen aukerak eta indarguneak garatzeko prozesua elementu nagusitzat hartzen duena, ongizatearen dimentsio kolektiboak aztertzeko duen garrantzia nabarmenduta; b) tokiko dimentsioa, garapena aztertzeko lurraldea erreferentziatzen hartzen duena. Tokiko dimentsioa eremu egokia da giza garapenari loturiko edukia duten aldatuta-prozesuak aztertzeko, bai eta haien zailtasunak eta finkatzeko aukerak azaltzen dituzten dinamikak aztertzeko ere.

2024an, ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak zerikusia izan dute batez ere ekonomia sozial eta solidarioarekin (ESS). Horien artean ditugu, alde batetik, Hegoak eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren finantzaketarekin gauzatzen dituen lankidetzeta-proiektuekin –jarraian deskribatuko ditugu– eta foru-aldundiei emandako aholkularitzarekin lotutakoak, eta, bestetik, Hegoako kideek REAS Euskadiko lantalde eta lan-batzordeekin eta Andeetako eskualdeko unibertsitate batzuekin duten lankidetzaren testuingurukoak. Esparru horretan, taldeko kideek hainbat artikulatu argitaratu dituzte eta hainbat ikastaro, hitzaldi eta kongresu akademikotan parte hartu dute.

Kideak: Jokin Alberdi, Asier Arcos, Edu Bidaurrezaga, M^a Luz de la Cal, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Xabier Gainza, Amaia García Azpuru, Luis Guridi, Elena Martínez Tola, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba.

Cauca Iparraldean (Kolonia) lurralde-bakea eraikitzea estrategia sozioekonomiko solidarioen bitartez (PRO-2021K1/0097)

Proiektua 2024ko ekainaren 30ean amaitu zen, Instituto Mayor Campesinorekin (IMCA) kanpo-ebaluazio bat eginda. Horri esker, etorkizunean eskualdean ezarriko diren estrategietarako gomendioak eta ikaskuntzak lortu ahal izan ziren. Lurralde-bakea eraikitzeko esparruan, landa-garapen jasangarriari ekarpena egin zaio, ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS), komunitarioaren eta feministaren ikuspegiekin. Horretarako, kulturarteko artikulazioa izan da bakea sinatu duten FARCeke borrokalari ohien kooperatiben, eta indigenen, afrokolonbiarren, emakumeen eta nekazarien antolakundearen artean, Cauca Iparraldeko lau udalerritan.

Horretarako, gerentziarako prestakuntza-programak, merkaturatze-estrategiak eta ekitatearen aldeko planak garatu dira. Elikadura-burujabetzarako (elikagai agroekologikoen ekoizpena, kafe berezien ekoizpen-prozesuetan hobekuntzak sartzea, etab.), merkaturatzeko eta ekimenen arteko lankidetzarako ekoizpen-ildoak bultzatu ditu. Eragin politikoa izan du, eskualdeko politika publikoan proposamenak kudeatu eta finkatu ahal izateko estrategiak gaitze aldera.

Caliko Universidad Javerianako Kulturarteko Ikasketen Institutuak (IEI) eta Corporación Ensayos para la Promoción de la Cultura Políticak osatutako tokiko partzuergo baten bidez gauzatu da proiektua. eLankidetzaz - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren dirulaguntza 583.632,96 eurokoa izan da.



Caucako iparraldeko emakume-erakundeen ahalduntze ekonomikoa (PRO-2021K2/0006)

Proiektua 2024ko martxoaren 30ean amaitu zen, Almacigaren kanpo-ebaluazioarekin. Ekonomia feminista (EF), ekonomia sozial eta solidarioa (ESS), elikadura-burujabetza eta antzeko eredu ekonomiko alternatiboetatik abiatuta, Caucaoko hainbat udalerritako emakumeen antolakundearen gaitasunak eta ikusgarritasuna indartzen lagundu da, emakumeen ahalduntze ekonomikorako.

Kulturarteko lankidetzarako estrategia bat ezarri da, EAEko eta Caucaoko iparraldeko laguntza teknikoarekin. Hala, ekimen ekonomiko-produktiboaren diagnostikoak egiten dituzte eta proposamen horiek formulatzen dituzte, tokiko eta eskualdeko erakundeetan aurkezteko eta eragiteko. Prozesuan babes- eta segurtasun-mekanismoak erabili dira, zaintza erlazional feministaren ikuspegitik.

Corporación Ensayosek eta Caliko Universidad Javerianako IEIk osatutako tokiko partzuergoarekin egin zen. eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak 288.617,41 euroko dirulaguntza eman zion proiektuari.



ESSaren tokiko ekosistemetan gaitasunak eta aliantzak indartzea, Andetako eskualdeko lurraldeetako trantsizio ekosozialetan laguntzeko (PRO-2022K2/0001)

Proiektua 2024ko abenduan amaitu zen, eta Andeetako lau herrialdeetako antolakundeen eta kooperatiben gaitasunak indartzea izan du helburu, tokiko eta EAeko unibertsitate-entitateekin antolatuta, beren lurraldeetako trantsizio ekosozialetan laguntzeko: Caucan (Kolonbia), bakesinatzaileen kooperatibekin eta nasa indigenen kabildoekin aliantza eginda; Chaco guaraní (Chuquisaca, Bolivia), erlezaintza-elkartekin; Erdialdeko Oihaneko (Peru) kafe-soroen kooperatibekin, eta Cayambeko emakume ekoizle agroekologikoekin eta Quitoko (Ekuador) kontsumo-kooperatiba batekin. Prozesuan parte hartu dute Andeetako zenbait unibertsitate eta toki-entitatek: UCE Ekuador, UNMSM Peru, Caliko Universidad Javeriana, IPDRS Bolivia, EHUko eta Hegoako irakasle ikertzaileak (Asier Arcos, Unai Villalba, Xabier Gainza eta Juan Carlos Pérez de Mendiguren) eta talde teknikoko langileak.

Aurten, prestakuntza-planak herrialdeetarako *onLine* programa bat, EAeko topaketa bat (2024ko uztaila) eta Ekuadorreko aurrez aurreko prestakuntza bat (Quito eta Salinas de Guaranda) jaso ditu. Ekimen horien 30 arduradun izan dira lurraldeetan (2024ko urria). Laguntza teknikoak izan da, bai EAetik, bai Andeetako entitateetatik.

Proiektuaren amaieran, *Transiciones ecosociales desde experiencias de Economía Social y Solidaria en Bolivia, Colombia, Ecuador y Perú* argitaratu zen beste batzuekin batera. Kasuak sistematizatu ziren bertan, eta tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan zabaldu zen. Horrez gain, liburua aurkezteko, “Trantsizio ekosozialak eta ekonomia alternatiboak” deituriko nazioarteko

onLine mintegia egin zen, Yayo Herrero (aktibista ekofeminista), Mirian Lang (UASB Ecuador) eta Hegoako (EHU) eta Andeetako unibertsitateetako irakasle-ikertzaileekin. Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradu-aretoan, urriaren 4an, aurrez aurreko mintegi bat egin zen, masterreko eta fakultateko ikasleekin.

Proiektutik, halaber, *Revista Iberoamericana de Estudios del Desarrollo / Iberoamerican Journal of Development Studies* aldizkariaren monografiko baten argitalpena babestu da, "Economía Social y Solidaria y Transiciones Ecosociales" izenburupean; proiektuko bi irakasle-ikertzaile laguntzailek argitaratu dute: Unai Villalba-Eguiluz eta Asier Arcos-Alonso.

eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak 270.102,31 euroko dirulaguntza eman du proiekturako.



Caucan lurralde-birgaikuntza eta bakerako lankidetzeta, sareko gaitasun produktiboak ikuspegi bereizgarriarekin indartuta. II. fasea (PRO-2023K2/0005)

Ekimenaren helburua da Caucaoko Antolakunde Komunitarioen Plataformaren (POCC) eta emakumeen antolakundearen gaitasun teknikoak, produktiboak eta antolamendukoak indartzea, EAEko entitateetatik eta kooperatibetatik gaikuntza eta laguntza teknikoa emanda, ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren arabera, eta ikuspegi bereizgarriarekin. Caucan birgaikuntza-prozesua babesteko estrategiari jarraipena eman zaio, landa-garapen jasangarriko estrategien bidez lurralde-bakea lortzen laguntzeko. Caliko Universidad Javerianako Corporación Ensayosek eta IEIk osatutako tokiko partzuergoarekin burutu da.

Bigarren fase honetan, 2024an amaitutako 2021eko deialdietako proiektuetan lortzen diren emaitzak finkatzea aurreikusten da. Horretarako, prestakuntza tekniko espezializatua izango

